

KOLDO CHAMORRO ARANZADI Gasteizen jaio zen 1949ko abuztuaren 20an, eta Iruñean hil, 2009ko urriaren 16an. Munduko herritar, Ekuatore Gineako Errepublikan bizi izan zen 16 urtez. Gero, bidaia asko egin zituen Europan, Afrikan, Ipar eta Hego Amerikako eremu zabal ugarian eta Ekialdean. Goi Mailako ingeniari teknikoaren ikasketak zituen eta diplomaduna zen Marketinean eta Enpresa Ekonomian, hauek Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean ikasiak.

1965tik argazkilari autodidakta izan zen. Gai afrikarrak eta gutxiengo etnikoenak landu zituen bereziki.

Argazkilari gisa egin zuen ikasketan, funtsezkoa izan zen Arte Castellblanch diru-laguntza. Horri esker argazkilaritzari buruzko ikasketak egin zituen atzerrian (1972-73), baita lanean jardun ere izen handiko argazkilariekin, hala nola Ansel Adams, Jean Dieuzaide, Lucien Clergue, Brassai, Ernst Haas, eta abar luze bat. Vianako Printzea Erakundearentzat (Nafarroako Foru Gobernua) zein Pilar i Joan Miró fundazioarentzat (Palma Mallorca) egin zuen lan.

New Yorkeko Minority Photographerseko kidea izan zen, baita Turner & Turner Agentziakoa ere (Paris eta Londres), elkarte horiek desegin ziren arte. Beste batzuekin batera, Alabern (Bartzelona) argazkilari taldea sortu zuen. Talde hori deuseztatua dago gaur egun.

Bakarkako lanen artean, aipa litezke: "Iturgoiengo kapareak", "Santokristo iberiarra", "Espainia Magikoa", "Sanferminak", "Zerbait euri ari du bihotzean", "Nazio baten sorrera", "Filico", eta abar. Bere obran, nabarmentzekoa da poema bisual sorta bat, argitaratu gabe dagoena.

Argazkilaritzako proiektu kolektibo askotan parte hartzera gonbidatu zuten. Garrantzitsuenak esatearren, hona: "Egun bat Espainiako bizitzan", "Galizia argazki oinetan", "Vigovisions", "Museoa 8 argazkilari nafarren begietan", "Puerto Realgo eta Sestaoko ontziolak: itsasontzi kontaineramailea", "Madril(e)k ikusia", "Mediterranea", "Valentzia", "Esguards Distant", "Badajozko inauteak", "Egunkari intimoak", "Malaga, gorputza eta itzala", eta abar.

Argazkilari independente moduan, aginduz edo bere gisa, Conde Nastentzat (AEB), El Paisentzat, Geo Frantziarentzat eta abarrentzat eginiko erreportajeez gainera, beste zenbait ere gauzatu zituen: erreportaje industrialak, enpresa oroitidazkiak, moda, argitalpenetarako ilustrazio ez-elektronikoak eta zinema industrialak. Azken urteetan, argitaletxeekin eta nazioarteko erakundeekin jardun zuen, baita dokumentalak eta film laburrak egin ere, zenbait euskarritan.

1973tik Argazkilaritzako ikastaroak eman zituen eskola pribatu batzuetan, eta irakasle gonbidatu gisa aritu zen Unibertsitate eta ikastetxe askotan. Testuak idatzi eta hitzaldiak eman ere bai.

Bere ahalegina saritua izan zen behin baino gehiagotan, besteak beste *Soho News* sariarekin, zuri beltzean argitaratutako lan hoberenari (New York, 1981) eta Liburuaren Institutu Nazionalarekin (1982an eta 1991ean). Urteko Argazkilari hautatu zuen *Foto Profesional* aldizkari espainiarrak (1989 eta 1992), eta Monterreyko Unibertsitate Teknologikoak (Mexiko) urrezko domina eman zion.

Aldizkarietan eta zenbait liburu/katalogo bakarkako eta kolektiboetan argitaratu izan da bere obra.

Era berean, mundu guztiko museo eta bildumetan dago Koldo Chamorroren obra.


KOLDO CHAMORROREN ARGAZKIAK NAFARROAKO MUSEOAN

Nafarroako Museoak ikusgai jarri du 2012ko urriaren 16tik 2013ko urtarrilaren 13ra, sail hau: "Hilotz berde guztiz fina". Koloretako 10 positibo polaroidek osatzen dute, pintura mistoan egindakoek (2.396 inbentario zenbakia). 1991n sortu zituen argazkilari nafar handi honek "Museoa 8 argazkilari nafarren begietan" proiektuaren barrenean. Nafarroako Museoan erakutsi zen horren emaitza, urte bereko martxoan.

Gainera, Koldo Chamorroren argazki hauek ditu:

- Koloretako 6 positibo polaroid, sail honetakoak: "Bortxaketa kosmikoa" (1988), urte horretan egileari erosi (2.173 inbentario zenbakia).

- 14 positibo zuri-beltzean, sail honetakoak: "Santokristo iberiarra" (1995). Horietako hamabi egileari erosi zitzaizkion 2006an (6.082 inbentario zenbakia). Beherago dituzun beste biak, 2011ko abenduan Museoari eman zizkion Chamorroren alaba Oihanek:



Fuentesaúco (1995) (6.373 inbentario zenbakia) eta La Alberca (1995) (6.374 inbentario zenbakia).

Web honetan jaso dezakezu informazioa www.museodenavarra.navarra.es